

Ebazpena: R 22/2022

Espedientea: 33/2017

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landin eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean GFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeina Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari baita, 33/2017 espediente-zenbakiarekin. Gatazkaren helburua ISL zergapekoaren langile jakin batzuen 2012tik 2014ra bitarteko lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea da.

I. AURREKARIAK

1.- ISL egoitza fiskala Gipuzkoan duen sozietate bat da, itsas arrantza profesionalean diharduena.

Horretarako, "A" izeneko itsasontzi bat dauka, 3. SS-X-X-XX matrikulakoa, egoitza-portua Pasaian duena.

2.- ZAEAk egindako ikerketen arabera, ontzi horretan lan egiten duten arrantzale-marinelak Galizian bizi dira, eta itsasontziak baxurako arrantza egiten du Kantauriaren ipar-mendebaldeko arrantzalekuan.

3.- 2017ko abuztuaren 2an, ZAEAk inhibizioa eskatu zion GFari, "A" itsasontzian zerbitzuak ematen dituzten arrantzale-marinelan lan-atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez, baina GFAk eskumena berea zela berretsi zuen, 2017ko irailaren 1ean.

4.- 2017ko irailaren 27an, ZAEAk gatazka-planteamendua aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, zeina 33/2017 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita.

5.- 2018ko abenduaren 5ean, GFAk hasierako alegazio-idazkia aurkeztu zuen, Arbitraje Batzordearen beraren doktrinan eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian oinarrituta, eta ZAEAk funts horien bidalketa eskatzeko eskubidearen preskripzioa ere alegatuz.

6.- GFAk eskatu zuen gatazka hori ondorioak zabaltzeko prozedura bereziaren arabera izapidetzeko, Kontzertu Ekonomikoaren 68.Hiru artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 10/2017 Legeak emandako idazkeraren arabera, hori baita aplikagarria, *ratione temporis*, otsailaren 8ko 1/2022 Legeak, 12/2002 Legea aldatzekoak, aldatu duela kontuan izanik.

7.- Alderdiek arrazoiaren identitateari buruzko alegazioak aurkezteko, 10 eguneko izapidea eman zen, eta, espedientea agerian jarri ondoren, azken alegazioen izapidea eman zen, hilabete batez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean auzirik sortuz gero, erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

2.- Gatazka ez da ondorioak zabaltzeko prozedura bereziaren bidez izapidetu behar; izan ere, GFAk, demandatu gisa, ez du legitimazio aktiborik, 10/2017

Legeak Ekonomia Itunaren 68.Hiru artikuluari emandako idazketaren arabera, honako hau xedatzen baitu:

“Hirugarrena. “Baldin eta norbaitek auzi bat aurkezten badu ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordean, eta auzi horren muinean dagoen kasuaren oinarria jada ebatzita badago beste auziren batean Arbitraje Batzordeak emandako ebazpen irmo batez, eskatu ahal izango du auzia ebatz dadila ebazpen irmo horren ondorioak zabalduaz”.

3.- Bi administrazioek ez dute auzitan jartzen gatazka honetan zehaztu nahi dela nork duen eskumena itsasoan, Pasaiaiko (Gipuzkoa) egoitza-portuari atxikitako itsasontzi batean, zerbitzuak ematen dituzten langile batzuei dagozkien lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikpenak ordainarazteko.

4.- Itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileei ordainarazteko eskumena Arbitraje Batzorde honek 2018ko ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpenean jada ebatzi zuen, 13/2015 Espedienteari buruzkoan, eta ebazpen hori zuzenbidearen araberakoa zela deklaratu zuen Auzitegi Gorenak, 1319/2019 zenbakiko epaian, 2019ko urriaren 4koan (Errek. zk.: 411/2018), ezetsi baitzuen ZAEAk haren aurka jarritako errekurtsua.

Arbitraje Batzordearen ebazpen hark, Auzitegi Gorenak berretsitakoak, Bizkaian egoitza zuen sozietate batek egindako tributu-kontsulta ebatzi zuen; aipatutako sozietateak ordainsariak ordaintzen zizkien beren lana Murtzian egoitza-portua zuen itsasontzi batean egiten zuten langileei. Kontsulta egin zen jakiteko zein Administrazioari (ZAEAr edo BFAr) ordaindu behar zitzaizkion PFEZen konturako atxikpenak, itsasoko langile horien ordainsariei zegozkienak. Arbitraje

Batzordeak ondorioztatu zuen administrazio eskuduna zela itsasontzia atxikita zegoen egoitza-portuari zegokiona, eta ondore horietarako itsasontzia lantokitzat hartzen zela.

lido beretik, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak, aipatutako 6/2018 Ebazpena eragin zuen Gatazka aurkeztu ondoren, idazketa berria ematen zion Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluari (hori da indarrean dagoena).

Idazketa berri horrekin bete egiten da itsasoko langileen atxikipenak ordainarazteko eskumenaren inguruan dagoen arau-hutsunea, eta tripulatzailea atxikita dagoen lantokiaren kokapena ezartzen da irizpide gisa.

5.- Ebazpen honekin alferrikakoa litzateke administrazioen arteko kredituen preskripzioari buruzko edozein gogoeta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola Pasaiaiko portuari atxikitako "A" itsasontzian 2012tik 2014ra bitartean lan egin zuten ISLko langileen lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumena.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ISLri jakinaraztea.